







Energiaren kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

**Energia elektrikoa**  
Euskadin abuztuan kontsumitutako elektrizitatea %1,2 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuz gero, eta urteko metatuari dagokionez %1,6 murriztu da. Eraikinen sektorea egonkor mantentzen den bitartean, industriak %3,3 egin du gora.

Etxebizitzaren sektorean, elektrizitate kontsumoa %1 murriztu da eta zerbitzuaren aldez %1,2 egin du gora.







Siderurgia sektorearen kontsumoak %4,2 egin du gora, eta hau kontuan hartu barik industriaren kontsumoa %2,8 handitu da. Azken honen barruan, bai burdinazkoa ez den metalurgia, bai paper eta kartoiaren industriak %12 behera egiten dute eta elikagai, edari eta tabakoen industriak, ontzizintzak eta beiragintzak aldez gora (%58,8, %36,8 eta %30,8, hurrenez hurren).

**Gas naturala**  
Abuztuko gas naturalaren guztizko kontsumoak %72,9 egin du gora aurreko urteko abuztuarekin alderatzen bada, eta urteko metatua %19,4 handiagoa izan da. Zentral termikoen kontsumoari dagokionez, 2018ko abuztuan 133 GWh kontsumitu ziren eta aurtengo abuztuan 1.425GWh. Gainerako sektoreek aldez, %5,2 egin dute behera.

**Erregaiak garraioan**  
2019ko uztailan, EAEn, garraioen erregaien kontsumoa %0,8 txikiagoa izan da 2018ko ekainarekin alderatuta. Urteko metatua, berri, %0,5 handiagoa izan da.

Epe berean, A gasolioaren kontsumoak %2ko beherakada izan du eta gasolinek aldez, %9 egin dute gora. aurreko urteko datuekin alderatzen bada.

Iturriak: EEEn lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



**Nazioarteko egoera**

**Petrolioaren kontsumoa munduan**

2019ko abuztuan, munduko petrolioaren kontsumoa egunean 101 milioi kupelekoa izan zen, aurreko urteko abuztuko kopurua mantenduz.

Epe berean, Txinak %4,1 hazi zuen bere kontsumoa 14 Mbpd arte. AEBek %1,8 murriztu zuen kontsumoa, ia 21Mbpd eta Europar Batasunak, %1,9 jaitsi zuen bere kontsumoa 15 Mbpd arte.







Munduan, azken 12 hilabeteko hileroko batez besteko kontsumoak 100 Mbpd ingurukoa izaten jarraitzen du.

**Gas naturalaren kontsumoa munduan**

OCDEko herrialdeetan, 2019ko ekainean, 118,4 bcm (milaka milioi m3) inguru kontsumitu ziren. Kontsumo hau aurreko urtekoarekin alderatuz %5,4 handiagoa izan zen. Aldiz, azken 12 hilabeteko hileroko batez bestekoa 147,5 bcm izan zen.

OCDEko zonalde geografikoen arabera, aurreko urteko ekainarekin erkatuta; Amerikan %2,9, Europan %2,6 eta Asia-Ozeanian %22,4 igo zen gas naturalaren kontsumoa. Urteko kontsumo metatuari dagokionez, Amerikan %1,8, Europan %2 eta Asia-Ozeanian %3,1 hazi ziren besteak beste.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



**Energiaren kontsumoa Espainian**

**Energia elektrikoa**  
Espainian, elektrizitatearen kontsumoak %3,7 egin zuen behera abuztuan, 2018ko hilabete horretan izandakoarekin alderatuta. 2019. urteko abuztura arte metatutako kontsumoa %1,7 baxuagoa izan da aurreko urtekoarekin konparatuz.






Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2019ko abuztuan berriztagarrien partaidetza %29 izan da, sorkuntza eolikoak %13a asetu duelarik. Gainerako sorkuntza, erregai fosilen (%47) eta nuklearraren (%24) bitartez asetu da.

**Gas naturala**  
2019ko abuztuan, Espainian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %42,6 egin du gora, 2018koarekin konparatuta. Igoera hau, zentral termikoetan izandako igoerari dagokio (%140) eta baita gainerako kontsumoen gorakadari ere (%0,7).

**Erregaiak garraioan**  
Espainian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera izan du 2014. urteaz geroztik. Uztailean %4 egin zuen gora, aurreko urteko hilabetearekin alderatuz eta urteko mentatuak %1 egin du gora.

Erregai motaren arabera 2019ko uztailean, gasolina kontsumoak %8,8 egin du gora aurreko urteko hilabetearekin alderatuz eta A gasolioak berriz %2,9.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



#### Energiaren prezioak

##### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 59,2\$ (53,2€) izan zen abuztuan, urte hasierako prezioetara itzuliz.

##### Elektrizitatearen prezioa

Espanian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 45,0 €/MWh izan zen abuztuan, aurreko urtearekin alderatuz %2,6 baxuagoa.

##### Gas naturalaren prezioa

Holandako TTF delakoa, erreferentziakoa batez besteko prezioa europar merkatuan, 10,1 €/MWh izan zen uztailean; Espainian, MIBGASena 12 €/MWh-koa eta Alemaniako EGIX M+1aren abuztuko prezioa 11,1 €/MWh izan ziren.

Nazioarteko merkatuetan, abuztuan, Henry Hub deritzona, 7,6 €/MWh-ra iritsi zen, eta prezioa Japonian 16,9 €/MWh-ra igo zen.







##### Erregaien prezioa

2019ko abuztuan gasolioaren prezioa 1,24€/l-tan mantendu da eta gasolinarena, berriz, 1,34 €/l-tan.

##### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren europar baimenak 26,8 €/t-ko balioa lortu zuen abuztuan.

Iturriak: EIA, OMIE, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



### Elektrizitatearen ekoizpena Europan

#### Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

2019ko ekainean, energia berriztagarrien parte hartzea %34,2koa izan da eta energia eolikoarena %15,6koa. Gainontzeko sorkuntza, energia nuklearrak (%22) eta erregai fosilek (%43,8) osatzen dute. Azken honetan, ikatzaren adierazgarritasuna %2an mantendu da.

#### Frantzia

2019ko sorkuntza elektrikoak Frantzian, aurreko urteko egitura mantentzen du; funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%69), erregai fosilek %6a asetu dute eta berriztagarrien ekarpena %25ekoa izan da ekainean.

#### Alemania

Alemanian, aurreko urteko sorkuntza joerari jarraituz, berriztagarrien ekarpena handituz doa (%48), erregai fosilen bidezko sorkuntzaren kalterako (%41); nuklearren partaidetzak bere horretan jarraitzen du (%11).

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da ikatzaren partaidetza (%25) eta, maila apalagoan bada ere, gas naturalarena (%14) izan da ekainean.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.